

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Transportes y Movilidad Sostenible	03. Garraioak 03. Transportes	440.110 Garraioaren arloko administrazio orokorra
06. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria		440.110 Administración General del Transporte

Garraioak, eta Mugikortasuna Jasangarria Sustatzeko Sailak ondo daki garraio publikoak bete beharreko eginkizunaren berri, tresna eraginkorra eta ibilgailu pribatuaren neurririk gabeko erabileraren benetako alternatiba izango bada. Beraz, jarduteko plan bat prestatu du:

1. Merkatugaien garraioa

2022ean zehar, eta gainerako Lurralde Historikoekin zein beste erakunde batzuekin elkarrekin egindako koordinazio eta ikuskapen planen arabera, eta 2005eko urrian sinaturiko eta 2008ko ekainean zabalduko akordioetan Herri Administrazio guztiek harturiko konpromisoak betetzeko asmoz, ekitaldi honetan honako hiru ildo bereizitan aritu gara lanean:

1.1. Ikuskapenari dagokionez:

Aurreko ekitaldian hasitako politika jarraituz, iruzurtzat jo litezkeen jardueren uneko jarraipena egin dugu. Izan ere, sektorerako lehia desleiala ekar lezake jarduera horiek. Ildo horretan, baimendu gabeko balizko jarduerengatik aurkezturiko salaketak egiaztatu egin dira, ziurtagiria eskatzeko honako errekerimendu hau eginez: era guztietako betebeharrak egunean izatea. Hartara, Sailaren eskumenekoa den oro azpimarratu da, eta beste erakunde ofizial batzuei helarazi zaizkie lan araudia eta gizarte segurantzaren araudia ez betetzearen ziozko zigor-espeidienteak eragin ditzaketen jarduerak, betiere aurkezturiko dokumentazioaren arabera.

El Departamento de Transportes, y Movilidad Sostenible consciente del papel que le corresponde desempeñar al transporte público como instrumento eficaz y alternativa real al uso indiscriminado del vehículo privado ha elaborado un plan de actuación centrado en:

1. Transporte de Mercancías

A lo largo del 2022 y en consonancia con los planes de coordinación e inspección elaborados conjuntamente con los demás Territorios Históricos así como con otras instituciones y, con el fin de dar cumplimiento a los compromisos adquiridos por todas las Administraciones Públicas en los acuerdos suscritos en octubre de 2005 y ampliados en junio de 2008, durante este ejercicio hemos trabajado en tres líneas diferenciadas:

1.1. En materia de inspección:

Siguiendo con la política iniciada en ejercicios anteriores hemos realizado un seguimiento puntual de las actividades que pudieran ser consideradas como prácticas fraudulentas y por lo tanto suponen una competencia desleal para el sector. En dicho sentido se han comprobado las denuncias presentadas por posibles actividades no autorizadas mediante el requerimiento de documentación acreditativa de encontrarse correctamente en lo que a sus obligaciones de toda índole se refieren, haciendo hincapié en lo que al Departamento le compete y dando traslado a otros organismos oficiales de aquellas actividades, que a la vista de la documentación aportada, pudieran dar lugar a la apertura de los correspondientes expedientes sancionadores por infracciones a la normativa de trabajo y seguridad social.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Transportes y Movilidad Sostenible	03. Garraioak	440.110 Garraioaren arloko administrazio orokorra
06. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	03. Transportes	440.110 Administración General del Transporte

Saileko ikuskapen-langileen jardunaren ardatza 2022. urtean Bizkaiko Lurraldean dauden enpresen gidaritza-egunak eskatzea eta horien analisia egitea izan da. 2006/22/CE zuzentarauaren arabera, eta hasieran balioetsitako kalkuluei jarraikiz, 2022. urtean 30.000 ibilaldi inguru kontrolatu behar ziren. Horien artean gutxienez %50 enpresetako kontrolak izan behar ziren, hau da, 15.000 bidaia inguru. Azkenean—35.625 bidaia kontrolatu dira.

Konpetentzia profesionalaren betekizuna betetzera behartuta dauden enpresen % 25 gutxienez kontrolatzeko betebeharrari dagokionez, horien baimenak urte horretan bisatu behar ez direnean, garraio kudeatzaile funtzioak betetzen dituen pertsona bat dutela egiaztatzeko, abenduaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 43.2 artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, 2022ean 22 enpresa kontrolatu dira.

Horretaz gain, takografo digitaleko 3.129 txartel eman dira.

Era berean, 2022eko ekitaldian 83 ikuskapen egin ziren eta erabilera bereziko ohiko garraioaren 290 baimen kudeatu ziren.

1.2. Trebakuntzari dagokionez:

Apirilaren 20ko 284/2021 Errege Dekretua indarrean sartu denez, CAP (Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria) prestakuntzan diharduten enpresek homologatu egin behar izan dituzte ikastaroak, araudi berri horren arabera. 2022an, hasierako prestakuntzako eta bidaariaren eta salgaien etengabeko prestakuntzako ikastaroen 102 homologazio izapidetu dira. 2022ko abenduaren 31n, hasierako prestakuntza eta/edo etengabeko prestakuntza emateko 85 zentro homologatu genituen Bizkaian.

En cuanto a la actividad del personal de inspección del Departamento, ésta se ha centrado en el 2022 en el requerimiento y análisis de las jornadas de conducción de las diversas empresas radicadas en el Territorio de Bizkaia. De conformidad con la directiva 2006/22/CE y de acuerdo a los cálculos inicialmente estimados, correspondía en el año 2022 controlar alrededor de 30.000 jornadas, debiendo corresponder como mínimo el 50% a controles en las empresas, esto es, 15.000 jornadas. Finalmente han sido controladas 35.625 jornadas.

Por lo que respecta a la obligación de controlar al menos el 25% de las empresas obligadas a cumplir el requisito de competencia profesional cuyas autorizaciones no hayan de ser visadas ese año, con el objeto de comprobar que continúan contando con una persona que ejerza las funciones de gestor de transporte, de conformidad con lo recogido en el artículo 43.2 del Real Decreto 1211/1990, de 28 de septiembre, durante el año 2022 se han controlado 22 empresas.

Adicionalmente, se han expedido 3.129 tarjetas de tacógrafo digital.

Asimismo, en el ejercicio 2022 se han realizado 83 jornadas de inspección y se han gestionado 290 autorizaciones de transporte regular de uso especial.

1.2. En materia de formación:

Debido a la entrada en vigor del Real Decreto 284/2021, de 20 de abril, las empresas dedicadas a la formación CAP (Certificado de Aptitud Profesional) han tenido que homologar los cursos conforme a esta nueva normativa. Durante el año 2022 se han tramitado 102 homologaciones de cursos de cualificación inicial y de formación continua de viajeros y de mercancías. A 31 de diciembre de 2022 tenemos un total de 85 centros homologados en Bizkaia para impartir la formación inicial y/o formación continua.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Transportes y Movilidad Sostenible	03. Garraioak	440.110 Garraioaren arloko administrazio orokorra
06. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	03. Transportes	440.110 Administración General del Transporte

2022. urtean zehar 340 ikastaro egin dira; ikastaro horietatik 70 hasierako prestakuntzakoak izan dira, 33 sustapenekoak eta 237 prestakuntza iraunkorrekoak. Era berean, hasierako prestakuntzako, salgaien sustapeneko, bidaiarien sustapeneko eta etengabeko prestakuntzako espezialitateen 340 ikastaro kontrolatu dira.

A lo largo del 2022 se han impartido 340 cursos de los que 70 han correspondido a cualificación inicial, 33 a promoción y 237 a formación continua. Así mismo, han sido controlados un total de 340 cursos de las especialidades de cualificación inicial, promoción de mercancías, promoción de viajeros y formación continua.

2022. urtean zehar 6 deialdi ospatu egin dira, urtarrilean, otsailean, apirilean, ekainean, irailean eta azaroan, hain zuzen.

A lo largo de 2022, se han celebrado 6 convocatorias de examen, en los meses de enero, febrero, abril, junio, septiembre y noviembre.

CAP txartelei dagokienez, 2022ean zehar 2.778 izapidetu dira.

En lo que se refiere a las tarjetas CAP, a lo largo de 2022 se han tramitado 2.778.

2022ko urtarrilean, sail honek errepideko garraiorako konpetentzia profesionala lortzeko azterketak egiteko eskumena hartu zuen bere gain, bere bi espezialitateetan: salgaien errepide bidezko barneko eta nazioarteko garraioa eta bidaiarien errepide bidezko barneko eta nazioarteko garraioa.

En enero de 2022, este departamento asumió la competencia para la realización de los exámenes destinados a la obtención de la competencia profesional para el transporte por carretera en sus 2 especialidades: transporte interior e internacional de mercancías por carretera y transporte interior e internacional de viajeros por carretera.

2022ko azken hiruhilekoan 9 azterketa egin ziren, eta 43 pertsona aurkeztu ziren; horietatik 13k gaitu zuten.

Durante el último trimestre de 2022 se realizaron 9 exámenes a los que se presentaron 43 personas de las cuáles aprobaron 13.

1.3. Administrazio eta kudeaketari dagokionez

1.3. En materia de Administración y Gestión.

2022ko ekitaldian bisatu egin behar izan dira bidaiarien garraio publikoa eta bidaiarien garraio pribatu osagarria (autobusak), turismo-ibilgailuen bidezko garraio publikoa (taxiak eta gidariaren alokairua), osasun-garraio publikoa eta osasun-garraio pribatua eta salgaien garraio pribatu osagarria.

En el ejercicio 2022 ha correspondido realizar el visado de las empresas dedicadas al transporte público y transporte privado complementario de viajeros (autobuses), al transporte público en vehículos de turismo (taxi y alquiler con conductor), al transporte público y transporte privado sanitario, y al transporte privado complementario de mercancías.

2022. urtean 4.121 baimenei eman zitzaizkien bisatua: 613 enpresa eta 3.508 ibilgailu.

A lo largo de 2022 se han visado 4.121 autorizaciones, correspondientes 613 empresas y 3.508 vehículos.

Bisatuz gain, salgaien, bidaiarien eta garraio-operadoreen garraio publikoko 4.315 baimen orokor izapidetu dira.

Además de los visados se han tramitado 4.315 autorizaciones genéricas de transporte público de mercancías, de viajeros y de operadores de transporte.